

Burgesaren Etxea

DEFINIZIOA

Etxe burgesaren kontzeptua, egoitzako tipologia bezala, Bizkaian 1853-1936 urte bitartean goi-burgesiak aberasteko izan zuen prozesuaren beren beregiko erantzuna da. Etxe burgesak beretzat hartu zuen formula, berezko familia baterako etxearena zen. Bizkaitar arkitekturan, familia baterako etxebizitza burgesaren protagonismoa oso handia izan zen, zenbait arkitekto, Leonardo Rucabado edo Manuel María de Smith adibidez, tipologia honetan espezializatu.

Cava etxeak, Jose Villalongak eta Gabriel Maria de Ybarrak 1869an eraikita, bizkaitar goi-burgesiaren aparteko bi erakusgarri dira. Bi etxeen osoko ikuspegia. Ezkerrara, Villalongarena, eskuinera, Ybarrarena.



Bizkaitar arkitektura honetako lehen adibideak, XIX. mendearen erdialdera, turismoak Bizkaian izan zuen garapenaren bidezkoak ziren, itsasaldeko hondartza ugarietan itsas-bainuetarako udako egonaldien ereduari jarraituz. Honen adibide bezala Portugalete udalerria dugu, hemeretzigarren mendearen erdialditik aurrera, itsas-bainuak hartzera zijoazten turistentzat bainu-hiria bilakatu zena. Bizkaitar eta espainiar goi-burgesiak osatzen zuen biztanlego udatiarra, bi gunetan kokatu zen: a) Abaroko erlaitza, non, 1853 eta 1908 urte bitartean etxeen sorta osoa (hotelak, txaletak, jauregiak) eraiki baitzen eta b) Kai Berriaren Lehen Tarteko Zabalgunea, eraikitzeko proiektua barne, 1869 eta 1872 urte bitartean ekimen pribatuak egin zuena.



Cava etxeak, Gabriel Maria de Ybarrak 1869an eraikita.

Adierazpen nagusi horrekin batera, hedapen gutxiagokoa baina oso interes handiko beste bat aipatu behar da: bizkaitar geografiako zenbait puntutan banako jabeen eraikinak. Horretara ditugu Billela Mungian (1852), Arana Jauregia Izurtzan (1852), Uribarren Jauregia Lekeition -desagertua- (Antonio Goikoetxea, 1856) eta Arteagako Gaztelua (Couvrechef y Ancelet, 1857).

Baina etxebizitza-mota hau ugaritzeko aldia, XIX. mendearen bigarren erdialdeko industrializazioan gertatu zen, aberastua izanik, bere agintaritzak ekonomikoa adierazteko egoitza berriak eraiki nahi zituen burgesia sortzearekin batera. Egoitza hauen kokapena ulertu ahal izateko, beharrezkoa da lehenago industrializazioak, Bilboko Itsasadarrarentzat, espazio integratu bat bezala artikulatzea suposatu zuela. Espazio honetan, udalerri bakoitzak egoitzako, industriako e.a.-eko bere funtzioa zuen Bilbo hiriaren burutzapean. Egituratze honen bidez, burgesiarentzat bainu-hirien egoitzako funtzioa Getxo, Portugalete eta Santurtzi hiru udalerrietakoa izan zen, hondartza egokiak zituzten

kostaldeak izateagatik. Familia baterako etxebizitza burgesak Bilbon ere garapen garrantzitsua izan zuen, hiri honek zuen burutzagatik. Burgesia, hiru aldetan batez ere kokatu zen: Mazarredo Zumarkalea, Campo Volantin-Deustu eta Indautxu. Udaldirako bakarrik kostaldean eraiki ziren etxeak, garraio, trenbide eta errepideen azpiegituren garapena zirela medio, behin betikoak bihurtu ziren. Marko nagusi honetatik kanpo, egoitza burgesaren beste gune txikiagoak ere sortu ziren Bakio, Busturia, Gernika, Lekeitio, Mundaka, Orduña eta Plentzian.

Etxebizitza hau ez zen eraiki industrializazioaren ondoriozko kapitalekin bakarrik, indianoen kapitalaz egindako egoitza-kopurua ere handia delako. Azken hauek Enkarterriak eskualdean (Alonsotegi, Balmaseda, Karrantza, Gordexola, Guenes, Zalla, e.a.) daude eta, hemendik kanpo, Larramendi-Mungian, Bakion e.a.

Ekimen pribatuak, era berean, egoitza burgesak eraikitze inbertitu zuen Loruri modalitatean. Hauen adibide gailenak Neguri eta Ondategikoak

dira, hurrenez hurren 1903 eta 1916an eraikiak.

Baina, ekimen pribatuaren bidezko etxebizitza burgesa ez zen bakarra, enpresarien ekimeneko beste bat ere baitzen lantegietako zuzendarien egoitzarako. Hauek, Barakaldo (Orconerako Txaleta -desagertua- 1878) eta Ortuella (Franco Belga enpresako ingeniarien etxeak, J.B. Darroquy, 1908) bezalako industriadun udalerrietan kokatu ziren.

Hemezortzigarren mendeko bigarren erdialdeko bizkaitar arkitekturan nagusitu zen estiloa eklektizismoa zen, europar arkitekturan nagusi zen jardunbidea errepikatuz. Bi aldi bereiz daitezke, esperimenezko isabeldaraldian (1853-1875) eta erabateko heldutasuneko alfonsotarrenean (1875-1900).

Mendearen aldaketako espainiar arkitekturan, 98ko krisiaren zioz, arkitektura berri baten definizioari buruzko eztabaida hasi zen, hemezortzigarren mendeko arkitekturan etengabe iraun zuena. Krisiaren aurreko erantzunak bi izan

ziren: modernista (europar bidea) eta erregionalista (nazioko bidea). Aukera hauek, modernismoaren vienar aldagarria salbuetsita, hemezortzigarren mendeko eklektizismoaren jarraipena izan ziren, apaindurazko errepertorioak bakarrik aldatuz.

Bizkaitar burgesiak familia baterako beren etxebizitzetarako XX. mendearen lehen herenaren zehar nahieneko joerak erregionalismoak izan ziren, neoeuskotar eta menditar bi aldagarrietan. Joera hauekin batera, bizkaitar berezko bat izan zen, ingeles arkitektura Reina Ana eta Old English erregistroetan. Bizkaitar burgesiaren ingeles bokazio hau, anglofilia jokabide baten ondoriozkoa, hemezortzigarreneko bigarren erdialdeko industrializazioan Bizkaiak Ingalaterrarekin izan zituen merkataritzako harremanetan oinarritua da.

Azken aldiaren hasiera-data 1930 da, urte horretan G.A.T.E.P.A.C.-eko Ipar Taldea sortu zelako, honek, arrazionalismoa estilo berriaren bidez, eklektizismoaren apurketa

argia suposatu zuela. Bizkaian, 17ko belaunaldiaren berriztapena izan zen garaile art déco izenekoaren bidez, aukera honek eklektizismotik razionalismora mailaz-mailako bilakaera bideratuz.



Ybarraren Cava etxea Bilbon. Egongelako kasetoiduraren zehaztasuna, neoarabiar estiloan.



Villalongaren Cava etxea Bilbon. Ateondoaren zehaztasuna neogotiko estiloan.

TIPOLOGIAK

Mendearen erdialdera Bizkaian egin ziren arkitektura burgesaren lehen adibideak, tipologikoan eta estilistikoan, jauretxe aglomeratu konpaktuaren bertako eraren zordun dira, honetara nabaritzen baita, adibidez, Portugaleteko Lexarza jauregian (Abaro, 1853).



Lexarza egoitza, goi-burgesientzat jolas-finken lehen adibideen artekoa bizkaitar aldi honetako arkitekturan. Ikuspegi osoa eta ateondoarena.

Formulazio iraunzale horien parean, beste proposamen aurrelariagoak ere badira historizismo erromantikoaren eraginaren zerikusian, Arteagako Gaztelua (Couvrechef y Angelet, 1857) izanik adibide erregistro neogotikoan. Fatxadako diseinuaren maila gorena ez dator bat tipologikoarekin, berriztatzeko proiektu bat, lehenagoko oin batean oinarritu behar izateagatik.



Familia baterako etxebizitzan isabeldar arkitekturaren erabateko heldutasuna, Portugaleteko Zabalgunean eta hoteleko funtzioa ere izanik, eraiki ziren Epalza eta Calvo jauregiekin -desagertuak- lortu zen (Francisco Orueta, 1869-1872). Hauetan, Matias Laviña, Narciso Pascual, Marques de Cubas e.a. bezalako arkitektoen madrildar arkitekturaren italiar jokabideak jarraitzen dira.

Egoera aldatuz doa 1875 eta 1900 urte bitartean, burgesiaren aldetik egoitza ulertzeko era, funtsean, harrerarako eta handitasuna jendaurreratzeko espazio batena delako; bizkaitarraren kasuan, arlo politiko, ekonomi eta gainerakoetan gizartean lorturiko agintaritzaren egoera agertarazteko. Egoera honetatik, diseinurako bi erronka ondorioztatzen dira: jarraitzeko estiloa eta egitarau konplexuagoei erantzuteko beharrezana. Erronka horretarako, obren maisu eta arkitektoen erantzuna, garaian ohikoa zen bezala, batez ere frantses eta ingeles jatorriko mostra-liburuak erabiltzea izan zen. Hauetan, burgesen ametsak errealitatea bihurtzeko formulak zeuden. Arkitekturaren

markoan mostra-liburuak erabiltzeak, denboraldi horretako estiloaren izaera eklektikoa nabarmendu zuen. Eklektizismoa, funtsean, adierazbide klasizistak berregiten dituen apaindurazko adierazbidea da. Hala ere, XIX. mendearen azken herenean burdina erabiltzen hasi arte ez du etxegintza-sisteman eraginik.

Urte hauetan burgesen egoitzako arkitekturan nagusitu zen joera Bigarren Inperioa estiloa (frantses jatorrizko eklektizismoa) izan zen, utzi zituen mostra ederren artean hurrengoak azpimarra daitezkeela: Hotel Letona -berritua- Bilbon (J. Saracibar, 1879), Zabalburu jauregia -desagertua- Bilbon (L. Landecho, 1888), Abaroa jauregia Lekeitio (Feiner, 1891), Villa Maria Luisa, Bilbon (Angel Iturralde, 1894), Olabari jauregia Bilbon (J. Zubizarreta, 1894), Hotel Dueñas, Portugaleten (E. Pagazaurtundua, 1901), e.a. Halaber, beste estilo batzuk ere izan ziren, nahiz eta presentzia txikiagoarekin: suizar txaleta, neorabiarra, neoflamendarra, e.a. Hauetatik Txabarriren jauregiak gailentzen dira, neoflamenkarra Bilbon (P. Hankar, 1889) eta neorabiarra -desagertua- Portugaleten (J.B.

Darroquy, 1903).

Modernismoa, vienar aldagarrian ezik, presentzia urrikoa izan zen burgesen familia baterako arkitekturan. Vienar estiloan baditugu oso adibide egokiak Mario Camiña, Pedro Guimon, Ismael Gorostiza edo Leonardo Rucabado arkitektoen eskutik. Hauek, bienar sezesionismoa zenaren bidez, oraindiko mugatua zen egoitzako egitarauen eta kanpoko diseinuaren arteko egokitzapena bilatu zuten, horretara, eklektizismoaren apaindurazko irakurketa soila gainditzean aurrera egin ahal izateko. Mendearen hasierako urte hauetan, posizionamendu hau inor gutxirena da bizkaitar arkitekturan. Sezesionismoaren adibide gailen bezala, Allende txaleta -desagertua- aipa dezakegu Bilbon (L. Rucabado, 1908).

Bizkaitar arkitekturarako, Reina Ana eta Old English ingeles estiloen aportazioa oso garrantzi handikoa izan zen. Izan ere, landatar etxegintzan esperientzia luzeagatik ingelesezko praktika, Europako garrantzitsuena alegia, ahalbidetu baitzuen. Tradizio honetako islapena, gehien bat, Manuel Maria de Smith arkitektoak egindako interpretazioaren emaitza izan zen, bizkaitar goi-burgesiarentzat 1904 eta 1918 urte bitartean Getxon egin zituen proiektuekin adierazbide gorenaren izanik. Huetako adibide gailena, Artazako jauregia Leioan (1914) izan zen.

Erregionalismoei dagokienean, neoeuskotarraren sorrera ebatzirik gabe dago historiografiaren aldetik. Menditar estiloaren kasuan, 98ko krisialdiari lotesten zaio bere sorrera: XVI, XVII eta XVIII. mendeetako espainiar eta kantabriar arkitekturaren aintzazko iraganera itzuliz egiten zaio erantzuna. Estilo honetako teoriko nagusia Leonardo Rucabado menditar arkitektoa izan zen, Mendiko erregionalismoaren interpretazio arkeologista defenditu zuena. Neoeuskotarraren kasuan, aldiz,

lehen formulazioak 98ko krisialdia baino lehenagokoak dira. Hau dela eta, erromantizismoak aldeztu zuen aspaldiko arkitekturak (basetxea, dorre gotorra) berreskuratzearen markoan uler liteke. Eredu erabilienak, ataridun basetxea eta jauregi barrokoa izango dira. Teoriko bezala, Pedro Guimon arkitektoa azpimarra daiteke.

Erregionalismoetan, funtsezkoena apaindurazko inguramena da,

horretara, erreferentzi sinboliko bilatuak transmititu ahal izateko. Mugimendu hauetan eredu ideala formulatzeko egin zen ahalegin teorikoa esandakoaren ondorioa da. Planteamendu honek baztertu egiten zuen aintzinako tipologia egokitzearen bidezko ikerlaritzaren posibilitatea, honen ondorioz aldiko solairu ohikoenak erabili izanik.



La Galanako korridore etxea Sestaon. Multzo-ikuspegia.

Eragina 1910 eta 1930 urte bitartean izan zuen menditar erregionalismoan erabilitako baliabideak, besteak beste, hauek ziren: dorreak, eskudoiekin apaindutako atariak, solanak, hegal markatuak, plaka molduratuak e.a. Menditar estiloak oso interprete onak izan zituen bizkaitar arkitekturan, hauen artean Leonardo Rucabado, Manuel Maria eta Ignacio Smith anaiak e.a. azpimarra litezkela eta, azpimargarriak diren adibideak bezala, bi proiektu eder: Eguzki-Alde txaleta Getxon (L. Rucabado, 1918) eta Lezama Leguizamon jauregia Getxon (M. M^a Smith, 1919).

Neoeuskotar erregionalismoak 1914 eta 1930 urte bitartean lortu zuen gehieneko garapena, nahiz eta egindako lehen adibidea 1898an G. Ibarretxeren Ibaigane jauregia izan. Neoeuskotarraren ezugarri ohikoenak, hurrengoak dira: bistako harlanduxka, zurezko itxurazko egituratzeak, fatxada nagusira kabailate perpendikularra duen ur bitarako teilatua, suebakiak, zurezko kontraleihoak, irtengunedun zurezko balkoiak txukuntasunez torneaturiko barandekin, arrosotako marrazkidun burdinkiak, arkudun

atariak e.a. Baina neoeuskotar estiloa ez zen eredu garbia bezala aplikatu, menditar eta ingeles estiloek batez ere kutsatu baitzuten. Neoeuskotarrean jardun zuten arkitektoen zerrenda oso handia zen, hurrengoak gailen ditzakegula: Ricardo Bastida, Tomas Bilbao, Manuel Galindez, Pedro Guimon, Gregorio Ibarretxe, Manuel Maria de Smith, Santos Zunzunegui, e.a.

Arrazionalismoaren familia baterako etxebizitza ez da jadanik goi-burgesiaren adierazbide formalista. Familia baterako etxebizitza, orain,

ongizaterako pentsatua dago. Hau lortu ahal izateko bidea, kostu handiko apaindura eklektikoen aurkako erreakzio bezala, lineen garbitasuna eta kanpoalde eta barrualdearen arteko interrelazioa nagusitzen duen espazioaren ikuskera berria da. Guzti hau ahalbidetzeko, eraikitzeke soluzio berria hasi zen erabiltzen: hormigoi indartua. Proiektu gailenduen artean, art déco izenekoaren eragin nabaria badute ere, Bermeoko Kikunbera txaleta (Fernando Arzadun, 1930) eta Bilboko Ispizua -desagertua- (Pedro Ispizua, 1934) daude.



Ybarraren Cava etxea Bilbon. Egongelaren zehaztasuna, neoarabiar estiloan.

FUNTZIOAK

Bizkaitar familiarako arkitekturaren egoitzako programa, XIX. mendearen bigarren erdialdean zehar itxuratuz joan eta XX. mendearen lehen laurdenean zehar kontsolidatu zen.

Isabeldar aldiaren lehen adierazbideetan, ez zen programa guztiz garatu eta espezializatu, tokiko tradizioaren pisua oso markatua baitzen oraindiko. Alfontzotar aldiaren berriz, eta europar egoitzako tradizioa bereganatzeari esker (ingelesagatik eragin nabariarekin), aldakuntza azpimargaria gertatu zen; honen bidez, programaren espezializazio eta konplexutasuna genituen, eremu desberdinen arteko banantze hertsiarekin batera.

XX. mendearen hasieran, ingeles arkitektura bereganatzearekin batera, heldutasun osora iritsi zen, europar egoitzako arkitekturaren egoitzarako eredu garatu eta esperimatuak aplikatuz. Heldutasuneko bizkaitar egoitzako kontzeptua, ingelesaren zorduna da baina, bizkaitar etxeen formatu txikiagoen ondorioz batez ere, berriazko ezaugarri batzuekin.



Lezama-Leguizamon jauretxea, Bizkaian arkitektura erregionalistaren adibide ikusgarrienetako bat.

Desberdintasunak hurrengoak dira: a) zerbitzuko aldea erdisotoan kokatzea b) alde nagusiaren murrizpena c) alde nagusian, ingeles tradizioan ohikoak ez diren bi gela sartzea: idazgela eta kapera d) kalefakzioa harrerako aldean bakarrik egotea, baina ez logelatan eta e) zerbitzuko alde txikiagoa.

Bizkaitar egoitzako arkitekturan, gehien errepikatzen zen joera, nagusia eta zerbitzukoa argiro mugatu eta espezializaturiko bi sektoreetan

banantzea zen. Artaza jauregia bezalako ez ohiko kasuetan bakarrik garatu zen ingeles eredua, zeinaren arabera lau aldeak bereizten baitziren: jaunena, umeena, gonbidatuena eta zerbitzariena. Banaketa honetako funtsa, zirkulaziorako gune desberdinak ezartzearen bidez, zerbitzarien eta jaunen banantze garbia lortzea zen. Zati hauetako eraketa mailaka egiten zen, hurrengo antolaketaren arabera: a) zerbitzua, erdisotoan edo bigarren

solairuan kokatzen zen eta b) jabeek beheko solairua eta solairu bat edo bi erabiltzen zituzten, zerbitzuaren ostatua non zenaren arabera. Halaber, mailakako banantze argia zen hurrengo banaketaren arabera: a) erdisotoan, etxeko bateango instalazioak, b) beheko solairuan, harrerako eta zerbitzuko aldea eta c) gainerako solairuetan, alde pribatua. Industriarien burgesia berriaren errekerimenduak egokitasunez

Artatza jauretxea.
Ateondoaren ikuspegia
erregionalista estiloan.



Leioako Artatza jauretxea,
bizkaitar egoitzazko arkitektura
burgesarren adierazpen heldua
dugu. Fatxada nagusiko
zerbitzarien sarrera.



betetzeko, egoitzako programak kontzeptu berri bat aportatu zuen, erosotasuna, Ingalaterra viktoriarrean sortuz gero, garai hartako europar arkitektura osoak bereganatu zuen egoitzarako ezaugarria, etxe barruko ongizatean gauzatzen zena. Hori lortzeko, baliabide ugari erabili ziren: egitarau garatuago bat egituratzetik ekipamendu oso batekin (kalefakzio zentrala, elektra-instalazioa, urlastera e.a.) hornitzeraino. Baina erosotasun-maila hau lortzeko zerbitzari ugari behar ziren, etxebizitzaren mantenimendua ikuspegi guztietatik, instalazioak, garbitasuna e.a. garatu ahal izateko. Alde nagusia, honetara osatzen zen: ateondoa, hall eskailerekin, egongelak, jangela, idazgela, kapera, jabeen logela eta bainugelak. Jarraian, hauetariko bakoitzaren funtzioa azalduko dugu laburkiro: ateondoa, sarrera nagusia eta etxearen hall erdigunearen (soluzio desberdinez babestuta egoten ohi zena: ataria, atarte, e.a.) bitarteko sarrerako gela txikia zen. Hall izenekoa zen etxearen erdigunea, bertan biltzen baitziren zirkulazio guztiak: batetik, harrera eta zerbitzuko aldeak elkartzeko eta,



Artatza jauretxea Leioan. Familiako egongelaren zehaztasuna, ingeles estiloan.



bestetik, beheko solairuko eskaileren bidez, lehen solairuko logelekin lotzeko. Baina, halaber, kanpoko zirkulazioetarako ere lekua zen, bisitarien harrerarako. Erdigunea izanaz gero, irakurtzeko, hitzegiteko, jolaserako espazioa zen. Egongela, etxeko andrearen eguneko jarduerarako zen, bertan egoteko eta adiskideen harrerarako funtzio bikoitzarekin. Jangela, garrantziaren arabera egongelaren hurrengoa, gizonezkoen menpekoa zen. Izenak dioenez, familiaren otordutarako zen erabilia, nahiz eta batzuetan familia biltzeko ere erabili izan. Jabeak lan egiteko lekua zen idazgela, batzuetan, liburutegi batekin eta bi gelekin osatua zen: bata bilarrekoa eta bestea erretzekoa. Kaperak, errestaurazioko burgesia alfonsotarregan erlijio katolikoak izan zuen garrantzi handia adierazten digu. Logelek, ongizate-maila handiagorako zenbait gela osagarri zituztela azpimarratu behar da: aldagela, apaingela eta bainugela. Aparteko sarbidea zuen zerbitzarien aldea, hurrengo gela hauekin osatua zen: sukaldea, ofizioa, garbigela, plantxagela, ardangela, ikatzgela, janarigela, lixibategia, logelak eta

komunak. Hiru alderdi nagusi zituen: a) janarien prestakuntza, solairu nagusian kokatu eta ofizioaren bidez (otordutarako tresneri osoa bertan zela) jangelarekin komunikaturiko sukaldean, b) jantzien garbiketa, garbigela, plantxagela, legorgela eta lixibategia, azken hau ez kasu guztietan, zituen erdisotoan eta, c) zerbitzarien egoitza, erdisotoan edo bigarren solairuan egon zitezken logelekin.



Hotel Olabarra. Bilbon, Santa Ana Lantegiko Lehendakaria zen Jose Maria de Olabarrik enkargatu zuen. Osoko ikuspegia eta kaperaren zehaztasuna eredu eklektikoan.



Kikunbera txaleta.
Egongelaren ikuspegia
art déco estiloan.



Kikunbera txaleta
Bermeon. Mugimendu
Modernoko arkitekturaren
ohiko itsas-irudidun leiho
baten zehaztasuna.



Kikunbera txaleta. Fatxadaren zehaztasuna, non, déco
kubista arkitekturaren berezko bolumenen jokua agertzen
baita. Mugimendu Modernoan ere nabaritu zen.

IBAIGANE JAUREGIAREN KASUA (BILBO).

Kokapena. Ibaigane Jauregia, Bilboko Mazarredo Zumarkalean kokatzen da, hirurogei hamarkadako higiezinako espekulazioaren ondorioz desagertu ziren egoitza burgesen multzo baten barruan. Gobernu Militarraren egoitza izan zenez gero, jauregi honek bertan iraun zuen.

Sustatzailea.

Eraikin honetako enkarguaren egilea Ramon de la Sota, bizkaitar industriarien goi-burgesian ordezkari gailenetakoa izan zen. Honek, unzigintzan batez ere lortu zuen bere dirutza. Halaber, politikan oso jarduera garrantzitsua izan zuen, Euzko Alderdi Jeltzalearen (E.A.J.) sorreran parte hartuz. Artearen alderdian, aparteko mezenazgo zeregina garatuz, arte pribatuzko bilduma izugarria egin zuen. Jauregi hau, Bilbon Sotak eraikitzea agindu zuen bigarren egoitza izan zen eta, bere diseinua, batez ere alderdikide izateagatik adiskide mina zuen Gregorio Ibarretxeri enkargatu zion.



Ibaigane jauretxea Bilbon. Osoko ikuspegia.

Estiloa.

Sota etxetzarra, neoeuskotarrean Euskal Herrian egiten den proiektuen arteko lehenetarikoa da. Pedro Guimonek 1910ean egin zuen estiloari buruzko lehen formulazio teorikoak baino zenbait urte lehenagokoa izanik, 1887an argitaratu zen La maison basque Henry O'Shea-ri zor zaion euskal arkitekturari buruzko lehen azterlana baino geroagokoa da. Regionalismo avant la lettre hau, sustatzailearen euskal ideologiaren emaitza da, ziur asko bere definizioan funtsean eragingo zuena, ideologia bereko Gregorio Ibarretxeren laguntasun garrantzitsuarekin.

Ibaigane, goi-burgesiak beren egoitzen estiloak hautatzeko jarraitzen zuen planteamenduari buruzko adibide aparta izan zen. Burgesia honetako asmoa, arkitektura, ekonomi-boterearen beste adierazbide bat bezala erabiltzea zen. Ramon de la Sotak, ordea, ideologiaren ñabardura argia gehitu zuen, euskal estiloaren berbizkundera, euskal abertzaletasunaren hasierako garai hartan. Testuinguru honetan ulertu behar da langileen toki-astekari baten

aldetik, memovizcainia leporatuz, Sotak bere garaian jasan zituen kritikak.

Sota Jauretxean, toki-tradizioaren bi eredu bategiten dira: a) aterpea arkuan duen basetxea, portiko eskarzanodun sarbidean eta, nekazarien etxeen ganbarak antzeratuz, hirugarren solairuko adrailuzko estalduradun itxurazko zurezko egituratzean hau ikusten baitugu, eta b) euskal jauretxe barrokoa, hurrengo ezaugarri hauekin: mendebaldeko fatxadan logia, toskaniar zutabeen gaineko uztai molduratuarekin, Sota familiaren armak dituen ertzeko eskudoa, ertzetako garitoiak, beheko solairuko hutsguneak eta lehen solairuko balkoiak babesten dituzten barren burdin lantzea, madari eta laranja erdiko korapilozko burdin lan izugarriarekin, habeburu landuak dituen hegal handia, eraikinaren konposizioko eskema, beraren ardatza, bigarren altueran balkoi korritu batez eta beheko solairu eta sarbideko eskaileran atari batez erremarkatu izanik.

Materialak. Zamako hormen funtzioa betetzen duten fatxadetarako, hiru

material erabiltzen dira: kareharria zokaloan, hareharria behe eta lehen solairuetarako eta adrailuz eta zuraz fajaturiko hormagintza hirugarren solairurako. Eraikinaren egitura metalezkoa da (sotoan ezik, hormigoizko bi zutoin baititu) eta 1898an eraiki zuen Sociedad Altos Hornos izenekoak. Egitura bertikalean, metalezko habe errematxatuez egina da, gelaren batetan zurez estaliak eta, horizontalean, igeltselaritzako sapaiekin metalezko habetxoekin forjatuez egina dago. Gainaldean, hegal zabaleko T bikoitzean errematxaturiko metalezko habeak ditu.



Ibaigane jauretxea Bilbon. Jatorrizko jangelaren tximiniako eskudoaren zehaztasuna, huraren jabeen inizialeekin (S eta A).

Barrualdean, kanpoaldeko aberastasun bera dago, honetara, errekaragatzen errazara erori gabe, edertasun bare ez ohikoa lortu eginaz. Hurrengo materialak erabiltzearen ondorioa da: kalitate handiko zurak, tonalitate zaindutako eskaiolak, Ereñoko marmorea, e.a.

Oina. Ia karratua (24x22 metro) den jauretze honetako oina, italiar ereduakoa da, hemezortzigarren europar egoitzako arkitektura burgesan gehien erabilitako formulen artekoa. Tipologia honen arabera, Ibaigane Jauregiko gela guztiak patio estali baten inguruan eratzen dira, beheko solairuan sarbideko ateondoarekin eta aterpe estaliarekin zuzenean konektatzen duena; lehen eta bigarren solairuetan, aldiz, gelak galeria baten luzeran antolatzen dira. Hurrengo lau mailatan egituratzen dira: a) etxearen instalazio eta zerbitzariarentzat erdisotoa, b) beheko solairua alde publikorako eta c) lehen eta bigarren solairuak alde pribaturako, kapera eta zerbitzarien logeletarako.

Luzernario bezalako den patio estalian, Meaumejean enpresak egindako Anselmo Guinearen beiradura dago. Guinearen diseinua modernista kutsu epelekoa da, ohiturazko eszenen ikonografiaz baliatuz.

Ibaigane Jauregian, aparteko bi eskaileren bidez, argiro bereizten dira zerbitzarien eta jabeen aldeak. Etxearen erdigunea hall izenekoa (patio estalia) da, alde batetik barruko zirkulazio guztiak banatu eta, bestetik, hiru elementu integratzen dituen ardatz jarraia osatuz: ataria, ateondoa eta eskailera. Beheko solairuaren antolaketa ez da hoberena, gizonezkoen menpeko espazioen konexio-ezagatik; honen arrazoia, oso ardatz zurrinak egitera behartzen duen etxearen oin karratua da.



Ibaigane jauretzea Bilbon. Ateondoaren ikuspegia, patio estaliaren soluzioarekin.

Eraikina inguratzen duen loragunea txikia da, babesten duen hesiak burni eta zurgintzako lan ezin hobekak dituela sarbideko ateetan eta ate nagusia estaltzen duen teilatutxoan.

Eraikin hau, Javier Marco Aristegui arkitekтуaren aldetik, Bilboko Athletic Klubaren egoitza izateko zaharberritu zen 1987 eta 1989 urte bitartean.



Ibaigane jauretzea Bilbon.
Jatorrizko jangelaren
ikuspegia ingeles estiloan